

Zuzenbide naturala eta euskal nazionalismoa

ZIENTZIAK esaten digu bizitza, eta horren barruan gizakia, gure planetan eboluzio zirkunstantziek ahalbideratu zuten garai egokian «sortu» zela, eta beraz, gizakia «orden» kronologiko eta matematiko baten eraginpean dagoela eta horri esker irauten dugula.

Gizadiak «orden» hori apurtzen badu, gizaki lez desagertzeko arriskua dauka.

Horregatik, gizakiak duen eginkizunik garrantzitsuenak, bizitzaren arduradun gisa gure planetan, «orden» horri eustea da.

Eta gizadiaren armoniari eusteko «orden» horren barruan, beharrezkoa da Zuzenbide naturala munduko herri desberdinetako Zuzenbidearen oinarria izatea.

Beraz, eutsi nahi badiogu ekologia orekari eta nazionalitateari gizadiaren gobernabilitatean, zuzenbide guztia Zuzenbide Naturalaren arauaren menpe geratuko da.

Zuzenbide Naturalak badu nahiko balorerik, munduko herri desberdinetako gizakien elkarbizitza bideratzeko eta birsortzeko.

Zuzenbide natural horrek, gizakiaren garapenean naturarekin berarekin kolaboratzen ari garen birtutea dauka, kreaio guztiarekin armonian doalako, gure planetan bizitza izan dadin beharrezkoa den ekologia orekarik galdu gabe.

Zuzenbide Naturalak gizaki orok sortutako zuzenbidea tajutzea lortu behar du, gizakia legedi desberdinek agintzen dutenera egoteagatik; legedi horiek giza mailakoak direnez, akasduak izan daitezke eta logikoa den bezala, herri desberdinak beraien existentziaren barruan sortuz joan diren benetako giza baloreak desbideratu ditzakete.

Gizakiak ezin ditu galdu giza baloreak, herri desberdinetako kulturek sortuak beraien historia aurrera joan ahala, izan ere, izadiak beharrezkoak bait ditu, gaur inoiz baino gehiago, gizarte giza antibaloreekin betetzen ari den eta momentu jakin batean giza existentzia gure planetan arriskuan jar dezakeen neokontserbadurismo egoistaren inbasioaren aurrean.

Eta kultura desberdinak iraun ahal izateko eta gizadiaren gobernabilitateko legedietan nolabaiteko eragina izateko, herriek askatasun osoa izan beharra daukate, eta herri batek ez dauka askatasunik, herri hori atzerritarrek inbaditu dutenean eta soberania nazionala kendu diotenean.

Beraz, herriek beharrezkoa dute subiranotasun

nazional osoa, kultura desberdinak gure planetatik desagertzetik nahi ez badugu.

Baina subiranotasun hori inoiz ez da izango egia, herriek ez badute beren eskubide historikoen kontzientziarik egiten, eta hori ez da posible, herri horren kontzientzia esnatuko ez duen alderdi nazionalistik gabe, bera Nazioa den kontzientzia, atzerriko menpekotasun orotik askea eta subiranoa izateko eskubide osoarekin.

Gizaki guztion askatasunari buruzko eskubide unibertsalaren dimentsio etikoa, Nazioarteko Zuzenbidearen barruan, herri guztien askatasun eskubidea da.

Lurralde eta etika erro milenarioetan sortutako herri baten (Euskal Herria adibidez) borondate moraletik sortzen den Nazioaren askatasun eskubideak, lehentasuna du lege guztien aurrean, Zuzenbide Naturala estatuen sorreraren aurrekoa izateagatik eta nagusia lege moralaren betebeharren ordenaren barruan.

Nazioa naturatik sortzen denez eta estatuak baino lehenago egoteagatik, horiek ezin dituzte xurgatu edo menperatu beraien legeen izenean, zuzenbide naturala den gizakien eskubiderik garrantzitsuenak erasotzea izango litzatekeelako.

Beraz, nazionalismo etnikoa guztiaren gainetik, zapalduko herri baten askatasun kontzientziatik sortutako balore moralak da, bere eskubide historikoen ozengailu erreibindikatzaila.

Gizaki guztiek beraien askatasunerako eskubidea duten kontzeptu unibertsalaren etikaren aurrean, Herri Nazio orok ere badu bere menperatzaileen-gandik *independentzia* lortzeko eskubiderik, eta ezin da nagusi izan herri horretakoa ez den Konstituzio zein legerik, bere Nazio Eskubideak kentzea justifikatuko duenik.

Nazioa sortzen da gizakiez osatutako gizarte batetik, eta lurralde, sorleku, ohitura eta hizkuntza batzuenagatik bizitz komunitate eta gizarte kontzientzia bildutakotik, eta ezin da egon inolako lege zuzenik, Herrien Nazio Subiranotasun osoa lortzeko eskubide legitimoa kenduko duenik.

Nazioak adierazten du eta ez Estatuak herri baten benetako batasuna, eta ondorioz, estatuen menpekotasunetik aske eta independentea izateko eskubidea.

Beraz, Zuzenbide Naturaletik nazio orok du eskubidea Nazio Subiranoa osatzeko, independente egiteko, beste nazionalitate bat edo gehiago dituen

Estatu baten barnean badago, edo Estatu bakar batean bere gain hartuz Estatu desberdinen menpe dauden nazionalitate beraren zatiak.

Beren izaera intimotik sortzen diren nazioen eskubideak ukatzeko, gobernuen edozein borondatezko ekintza politikoak baino lehenagokoak eta horietatik independenteak, beharrezkoa da erabakior-tasunez ukatzea munduan justizia eta zuzenbidea dagoenik.

Nazio guztien harremanak elkarren arteko beharizanetan oinarritzen direnez, batzuk besteen osagarri izanik, eta guztiak beharturik egonik, ez soilik arrazoiaren autoritatearengandik, baizik eta gizakia den unitate bakar eta organikoaren zati gisa onartzeko behararen indar eragileagatik, gizadia beharturik dago, herri etnikoek beraien subiranotasun politikoa berreskura dezaten konpromezua hartzea, horrela askatasunean baino garatu ezin daitekeen bere kultura aniztasunak, giza baloreak handitu ditzan eta beraz gizadiak ahal duen osotasunik handiena lortu gure planetan.

Etnia eskubideak gizakiengan eman daitezkeen bereizgarri legitimo eta justuenak dira, herri konkretu eta jakin baten ahalegin kolektiboarekin lortzeagatik.

Justizia zorrotz batean, inork ezin ditu herri baten ondasunak administratu bere baitenik gabe, eta gutxiago horietaz jabetu, izan ere, usurpazio horrekin Gizadiaren eskubide legitimoenak bat kendu egingo bait litzateke.

Justiziagatik borrokatzen duen edozein hiritarrek eta beste herriek berea bidegabeki zapaldukoak baten bizi denak, herri zapaldu bateko nazionalista izan beharko luke nahitaez, defendatzen dituela dioen ideiekin kontsekuentea bada, izan ere, nazionalismo etnikoa da, agian kausa justu eta gizabidezkoena gaur egun gizakien artean, historia guztian herri baten ahalegin kolektiboarekin egindako eskubide bategatik borrokatzeko.

Herrien zuzenbide naturalaren filosofia hori euskaldun batentzat bere Aberriari buruz galdetzerakoan, uneoro zitz egiten dion eztena izan beharko litzateke, eta soilik Euskal arazoaren arrazoiaren-dutik bakarrik aterata daiteke militante nazionalista bat benetan Euzkadiri legitimoki dagozkion askatasunengatik borrokatuko duena.

VALENTIN HERRAN INTXAUSTI
ENPRESARIA

Ekonomia plangintza

EKONOMIA plangintza kontzeptuaren inguruko aintzinako polemikak gauditu ondoren, gaur egun plangintza hori sektore publikoaren gestioa ordenatzeko eta razionalizatzeko tresnatzat hartzen da, eta horretarako agente pribatuak beharrezko informazioa ematen zaie, hartu behar dituzten erabakien esparru orokorrari buruz.

Plangintzaren bidez sektore publikoari eta gizarteari orohar epe erdira, diseinu bat emango zaie, ekonomia politikoaz eta gobernu ihardueraz, eta erabilgarria izateko, sinesgarritasunean oinarritutako konfidantza nahikoa sortu behar du.

Plangintzaren ezaugarria, gauza publikoak ohizkotatuz gero, gauzatzea bada eta hori berezoko tasuna

baldin badu, desiragarria da, arrakasta izan dezan, horrekin batera instituzio eta gizarte agenteen artean gogoeta, partehartze eta kooperazio prozesua ematea, sektore publikoaren iharduera ardatz desberdinekiko lehentasuna nork duen jakitea argi eta garbi ahalbideratuko duena.

Nahitaezkoa da gainera, plangintza gauzatzean arreta berezia jartzea zuzpergarriak moztean, ekonomia sistema osotasunean hartzean eta iharduketen diseinua erabat inteligentzia izatean, horrela ebitatu egingo bait dira kasu askotan bihurrikeriak baino sortarazten ez dituzten zuzeneko iharduketak.

Gaur egun eta Gobernu Programan hartutako konpromezua kontutan hartuta, plangintzaren apostua da, Europako Merkatu Bateratuari begira Euskal

Herriko ekonomiaren oinarria proposatzeko eta lurraldeen arteko desorekak gutxitzeko funtsezko tresna izatea lortzea.

Apostu horrek, jakina den bezala, ez du eskatzen soilik ekonomia ikuspegi bat, ezta planteamendu tekniko sofistikatu bat ere. Borondate politikoa eskatzen du batez ere, hori gabe oso zaila izango bait da, ezinezkoa ez esateagatik, plangintza prozesua era atseginean amaitzea.

CARMEN GALLASTEGUI
EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIA
KONTSEILARIA
*Erredazioan itzulia

BERRIAK ZIRI



CARLOS MIRANDA
Espainiako Enbaxadorea
NATO
EL INDEPENDIENTE
1991-V-13

«NATOk bere paper politikoa militarren gainetik indartuko du, Europako aldaketen ondoren»



ALEKSEI LITVINENKO
Letoniako sindikalista, errusiarra
EGIN
1991-V-13

«Letonia subirano baten alde nago, baina SESBekin harreman ekonomikoak apurtu gabe»



MIKHAIL GORBATXOV
Soviet Batasunoko
lehendakaria
EL CORREO ESPAÑOL
1991-V-13


«Mosku eta Washingtonen arteko harremanak okertzen badira, «beste gerra hotza bat egongo da»



CARLOS WESTENDORP
EEErako Estatu idazkaria
DIARIO DE NAVARRA
1991-V-13

«Hemendik hamar urtera Espainiako ekonomia seguraski Europako Elkarteko batezbestearen parean egongo da»

ZAKILIXUT



© Olariagak